



**2011. urterako Ondarearen gaineko
Zerga berriz indarrean jarriko duen
Foru Arau Proiektuaren txosten
ekonomikoa eta genero eragina**



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Zergabilketan eragina duten arau aldaketen identifikazioa
3. Foru Arau Proiektuak dakarren eragina zergabilketan
4. Foru Arau Proiektuak dakarren genero eragina



1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duten Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan eta generoaren ikuspegitik 2011 urterako Ondarearen gaineko Zerga onartzen duen Foru Arau Proiektuan aurreikusitako zerga neurriek. Kalkulatu nahi izan da zenbateraino aldatuko den zergabilketa, baldin eta arau proiektu berria aplikatzen bada, aurreko ekitaldiarekiko zergabilketa iturri berria suposatzen duen aldetik.

Proposamenaren barne biltzen diren alderdi normatiboek zergabilketan modu berezian eragiten dute. Zergabilketan eragina neurtze aldera, proiektua osatzen duten arauen aplikazioz zein kuota likido lortuko litzatekeen kalkulatzeko da: horretarako Ondarearen gaineko Zergari buruz dauzkagun azken datuak (2008 ekitaldikoak) erreferentziatuz hartu dira, aitortzaileen kopurua zein oinarri zergagarriaren osaera kontutan hartzeko, eta orainaldira proiektatu dira zenbait irizpideren arabera.

Txosten honek beste hiru atal ditu sarrera honekin batera. Bigarrenean, proiektuan jaso eta zergabilketan eragina duten neurri nagusiak zerrendatzen dira, betiere kalkulu fidagarriak egiteko datuak erabilia. Horretarako, indargabetuta zegoen idazkera eta proposatutakoa transkribatu ditugu. Hirugarren atalean, foru arau proiektuak zergabilketan izango duen eragina kuantifikatu da. Eta laugarren atalean, foru arau honen generoari buruzko txostena aurkezten da.



2. ZERGABILKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAKETEN IDENTIFIKAZIOA

<i>Foru Arau Proiektuaren eta indargabetuta zegoen araudiaren arteko aldeak</i>	
<i>Ondarearen gaineko Zerga</i>	
<i>14/1991 Foru Araua (2009ko urtarrilaren 1az geroztik indargabetua)</i>	<i>Foru Arau Proiektua</i>
<i>1. Ohiko etxebizitzaren salbuespena</i>	
«4. artikulua. Salbuetsitako ondasun eta eskubideak	«4. artikulua. Salbuetsitako ondasun eta eskubideak
... Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Errenta zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 30.2.b) artikuluan definitua, 200.000,00 euro raino gehienez. »	... Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 90.8 artikuluan definitutako eran, 300.000 euro raino gehienez. »
<i>2. Minimo salbuetsia</i>	
« 28. artikulua. Oinarri likidagarria.	« 28. artikulua. Oinarri likidagarria.
28. artikulua. Oinarri likidagarria 1. Obligazio pertsonalaren kasuan, oinarri ezargarria 208.000 euro murriztuko da, minimo salbuetsi gisa. 2. Zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboari ez zaie aplikatuko aurreko apartatua aipatutako minimo salbuetsia. »	28. artikulua. Oinarri likidagarria 1. Obligazio pertsonalaren kasuan, oinarri ezargarria 600.000 euro murriztuko da, minimo salbuetsi gisa. 2. Zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboari ez zaie aplikatuko aurreko apartatua aipatutako minimo salbuetsia. »

Zenbait aldaketa eman dira:

1. Ohiko etxebizitzari dagokion kopuru salbuetsia eguneratu da.
2. Oinarri ezargarriari oinarri likidagarria lortzeko kentzen zaion minimo salbuetsia handitu egin da .



3. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARREN ERAGINA ZERGABILKETAN

Aurreko ekitaldiko daturik ez dagoenez, azken bi urteetan zerga indargabetua egon baita, proiektuaren zergabilketa eta genero eraginaren kalkuluak egiteko oinarri gisa erabilitako datu basea 2008ko ekitaldikoa da (2009an egindako aitortpena). Ondoren, zenbait eguneraketa irizpide erabili dira datuak 2011ra proiektatzeko.

Neurriek 2011ko ekitaldiko aitortpenetan izango dute eragina. Eta kasu honetan datu horiek proiektatzeak ematen ditu arazo handienak.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da 2008ko zergaren oinarria nola banatzen zen. Guztiaren %21 ondasun higiezinak ziren, %20 kontu-korrante eta aurrezki-kontuetan egindako gordailuak, eta %54 balore higikorrak.

- Ondasun higiezinak: 2008tik 2011ra balio katastralak %4,04 igo dira.
- Kontu-korrante eta aurrezki-kontuak: aurreikusten da beraien zenbatekoa %3,8 igotzen dela.
- Balore higikorrak: hemen era askotako balore motak sartzen dira (kotizatutako akzioak, kotizatu gabeko akzioak, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak...). Mota honetako baloreak beherakada nabarmena jasan zuten 2008, urte horretan (%28,1 jaitsi ziren 2007arekin alderatuta).

Hori guztia kontuan izanda, eta osagai guztiek ordutik izan duten bilakaera aztertuta, egiten den hipotesia zera da: 2008ko zenbateko berdinetan geratzen direla.

2011rako proposatzen diren aldaketak dira:

- Minimo salbuetsi orokorra 600.000 eurora igotzen da.
- Ohiko etxebizitzaren minimo salbuetsia 200.000 eurotik 300.000 eurora igotzen da.

Hipotesi horiek kontuan izanda emaitza hauek ateratzen dira:

	2008	2011 (aurreikuspena)
Ordaintzera ateratzen zaien zergadun kopurua	13.279	5.218
Zenbatekoa (eurotan)	44.955.181	27.513.097



Beraz, Ondarearen gaineko Zerga berriz indarrean sartzea helburu duen Foru Arau Proiektu honen zergabilketa-eragina positiboa litzateke, 27,5 milioi eurotan, hain zuzen ere.

Aldi berean, zergabilketaren eragin osoa oinarri ezargarriaren tarteen arabera banatzen badugu, ondoko emaitza lortzen dugu:

Oinarri ezargarriaren tartekako zergabilketa eraginaren banaketa

OINARRI EZARGARRIAREN TARTEAK	ORDAINDU BEHARREKO KUOTA 2009				ORDAINDU BEHARREKO KUOTA 2012			
	(mila eurotan)	Aitortz. kopurua	Kuota zenbat.	Kuota g/ zenb % Metat.	% Metat.	Aitortz. kopurua	Kuota zenbat.	Kuota g/ zenb % Metat.
151 - 300	2.532	253	0,6	0,6	0	0	0,0	0,0
301 - 600	5.361	2.688	6,0	6,5	0	0	0,0	0,0
601 - 1.503	4.024	11.149	24,8	31,3	3.929	3.558	12,9	12,9
1.503tik gora	1.362	30.865	68,7	100,0	1.289	23.955	87,1	100,0
GUZTIRA	13.279	44.955	100,0		5.218	27.513	100,0	

Zergaren izaera progresiboak berak ekartzen du oinarri ezargarriaren goiko tartetek zergari ekarpen handiagoa egitea, nahiz eta aitortzaileen kopuru txikiagoa bildu. Kasu honetan ere, oinarri zergagarriaren goiko tartetek zergabilketan eragin handiagoa sortuko dute. Foru Arau Proiektu berriak, zentzu honetan, progresibitatearen helburuaren alde jokatzeko du, ondare maila altuenei zergaren zama handiena ezarriz.



4. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARTZAN ALDAKETEN GENERO ERAGINA

4.1. Txostenaren oinarriak eta helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera. Era berean, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

4. 2. Generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoak diren neurriak identifikatzea

Dagokigun Foru Arau Proiektuak Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea du helburu. Zentzu horretan, foru arau proiektuak pertsonengan, emakume nahiz gizonengan, eragin zuzena du, beraien baitan duten ondarea zergapetzen baitu.

Foru arau honek gizon eta emakumeei zuzenean eragiten dienez, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.

Dena den, aipatu beharra dago, neurri unibertsal baten aurrean gaudela, hau da, ez dago talde zehatz bati bideratua, eta bere helburua zerga-sistemaren progresibitatea areagotzea dela, foru ogasunari baliabide iturri berri bat sortuz, aldi berean. Beraz, hurrengo atalean nolabaitekoo genero-eragina ondorioztatzen bada ere, helburu nagusi horren azpitik kokatuko litzateke beti ere, hau da, progresibitate eta baliabide publikoen banaketa hobe baten alde, krisi ekonomiko garaian hain garrantzitsuak biak.

4.3. Genero inpaktuaren balorazioa

Ondarearen gaineko Zerga berrezartzeko Foru Arau Proiektu honen genero eragina kalkulatzeko orduan, 2008. urteko aipatu zergaren aitortzen datuak (2009an aurkeztutakoak) erabili dira eta, zergabilketan eragina kalkulatzeko orduan azaldu dugun moduan, zenbait irizpideren arabera 2011 urtera proiektatu dira. Ondoren, araudi berriaren ezarpenez zein kuota sortuko litzatekeen kalkulatu da, aitortzailearen sexuaren arabera emaitzak banatu ditugularik.



Aurreko azalpenen ondoren, lortutako emaitza ondorengo da:

Sexua	Kuota Likidoa	Kuota %	Aitortzaile kopurua	Aitortzaile %
Emakumea	14.938.064	54,29	2.934	56,23
Gizona	12.575.033	45,71	2.284	43,77
GUZTIRA	27.513.097	100,0	5.218	100,0

Aurreko koadroan ikus dezakegunez, bai zergadun kopuruan (%56,23 emakumeak, %43,77 gizonak), bai zergari kuota likido bidez egiten dioten ekarpenean (%54,29 emakumeak, %45,71 gizonak) emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da. Estatistikek gizonak errenta handiagoak lortzen dituztela erakusten badute ere, maila altuko zenbait ondarek emakumeen eskutan bukatzen dute, arrazoi desberdinak direla-eta (ondarearen metatzea alarguntasunarekin batera, zenbait enpresari gizonetzkoen kasuan ondasun-banaketa bidez emaztearen izenean ondarea jartzea erantzukizunak sahiesteko,...). Hala ere, emandako arrazoiak hipotesi hutsa besterik ez dira eta, egia dena da, foru arau proiektuak neurri handiagoan eragingo diela emakumeei. Zentzu honetan, foru arauak eragin negatiboa edukiko luke zergapetuko lituzkeen emakumeen kopuruaren aldetik, baina, bestalde, progresibitate aldetik neurtuz gero, emakumeentzako eragina txikiagoa litzateke (kuotaren %54,29 ordainduko lukete, aitortzaileen %56,23 direlarik). Hala ere, proiektuak eduki lezakeen genero eragina alde batera utzita, berriz ere azpimarratu behar dugu funtsezko helburua kasu honetan progresibitatean aurrera egitea dela eta baliabide publikoen banaketa hobea egitea. Izan ere, honek emango baitu aukera genero berdintasunaren aldeko eta , orokorrean, gizarte desberdintasunak desagertarazteko politikak aurrera eramatea.

Donostia, 2011ko urriaren 26a

AZTERLANEN ATALEKO BURUA

O.I.

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA